



Zure lehiakortasuna hobetzen dugu eta zure arnaskuak minimizatzen ditugu



enpresaBIDEA



HITZ BITAN

Laura Marron: "Hazitegi ona dugu, baina adimen artifizialari dagokionez bidea dugu egiteko"

Adimen artifizialak "une gogoangarri" bat bizi duela uste du BAICeko zuzendari nagusiak




Niko Cuenca Beristain/Maite Reizabal Arregui
2023ko apirilaren 25a 09:30



Ekosistema bateratu eta kolaboratzaile publiko-privatuaren sustatzea du BAIC-en helburu nagusia du Marroren hitza (Argazkia: Aritz Loidola/Foku)

Aurki beteko da urtebete Laura Marron Merinok BAIC Basque Artificial Intelligence Centerreko zuzendaritza hartu zuenetik. Nork esan behar zuen orduan 2022an adimen artifizialak (AA) halako bultzada har zezakeela, gaurkotasunaren lehen leinotara salto eginda ChatGPT dela-eta batez ere. BAICek, sortu zenetik—2021eko uztaila—, euskal ekosistema saretu eta bultzatzea, adimen artifizialaren dibulgazioa egitea eta talentua sustatzea izan ditu erroka, besteak beste. Horiel buruz, adimen artifizialaren mehatxuez eta aukeraz, eta etikaz eta araudiak hitz egin du Marronek EnpresaBIDEArekin.



Nola ulertzen du BAICek adimen artifiziala?

Guretzat helburua da adimen artifizialaren garapena bizkortzea, eta industrian aplikatu dadin. Alegia, BAICentzat adimen artifiziala tresna bat da balioa eransteko, eta ekosistema eta aplikazio berriak sortzeko.

Bere horretan definizioz bazoaz, guk Europako erregulazioak ezartzen duena hartzen dugu, hori baita bete behar izaten duguna: "sistema bat da, autonomia puntu batekin operatzeko diseinaturia, gizakiak edo makinak bildutako datuetan eta sarreteran oinarritutakoa. Datu horiekin helburu jakin batzuk lortzen ditu, kasu horretan gizakiek definiturikoak". Beraz, datu-multzo batez ari gara, non algoritmo batzuk sartuta irteera batzuk lortzen dituzte. Edozein kasutan, esan bezala, guretzat tresna bat besterik ez dira. Adimen artifizialaren kaxaren barruan teknologia asko sartzen baitira—machine learning, bisio artifiziala,—, eta horien bitartezko erabilera asko.

Alegia, lehenik beharra edo arazoa identifikatu behar da, ezta?

Bai, hori da guk beti gomendatzen duguna. Enpresa bezala nire merkatu eta negozioaren ezagutza dut, behar bat identifikatu dut, eta hortik ikusi zein pieza teknologikok balio izan.

Berdin ulertzen al da herritarrentzat eta enpresentzat?

Teknikak berdinak dira. Erabilera da aldatzen dena. Edozein kasutan, urteak dira enpresa munduan adimen artifiziala erabiltzen dela. Aldatu dena da adimen artifiziala denongana heitze hori kodetzeari buruz ezer ez jakitea eskatzen duten aplikazioen bitartez.


"Twitterrek bost urte behar izan zituen 100.000 milioi harpidedun lortzeko; Instagramek bi urte eta erdian lortu zuen; ChatCPGTk bi hilabetetan lortu du"

ChatGPT eta antzekoen boomak ikusi dugu. Baina inflexio puntu bati buruz ari al gara adimen artifizialari dagokionez?

Une gogoangarri bat bizi dugula uste dugu. Datuak ematearren, AVS aholkularitza finantzarioko txosten baten arabera, LDM ereduaren—tamaina handikoa—sarbidea teknologiararen historiako garrantzitsuenak izan da. Twitterrek bost urte behar izan zituen 100.000 milioi harpidedun lortzeko; Instagramek bi urte eta erdian lortu zuen; ChatCPGTk bi hilabetetan lortu du. Beraz, sarbide aldetik, baita teknologien inisgarritasunari dagokionez, puntu garrantzitsu bat izan dela uste dugu.

Inflexio puntu hori enpresetan ere nabaritu duzue?

Teknologiararen berri izateak zenbait enpresen interesa piztu du, zehazki, hainbat enpresa txiki eta ertainena, oraindik pauso hori eman gabe zutenak. Egia da ez dagoela hain neurtuta LNM teknologia horrek eta antzekoek industriaren kasuan zein zuzeneko inpaktu duten. Baina teknologia horrek hedabideetara halako saltoa egin izanak laguntzen du eurentzat izan daitekeela pentsatzen.



Adimen artifiziala asazko odo behar bati trantsizioa emateko tresna dola adierazi du Laura Marronek (Argazkia: Aritz Loidola/Foku)

Adimen artifiziala industria 4.0ko trantsizioan ezinbesteko hanka izan da?

Industria 4.0 ere emandako pauso batzuk dira, pieza talde bat. Egia da adimen artifiziala aurreko pieza horiek gabe ez dela posible. Lehen puntua da digitalizazioa, non datuetara dagoen sarbidea. Industriako eraldaketa ahalbidetzen duen elementu nagusia da datuak eta kalkulu gaitasuna uztartzea. Horrela lortzen duzu urtebetea izan eta bestelakoak aplikatzea.

Nola dago EAE posizionatua adimen artifizialari dagokionez?

Ezeren aurretik, BAICen ardatzetako bat da Behatokia, eta idazkaritza teknika zabaldu berri dugu adimen artifizialari loturik eragileen mapeoa egiteko, ikusteko nor den nor adimen artifizialaren EAEko ekosisteman, zer dagoen oso garatua eta zer garatu nahi dugun, eta gurea neurtu eta beste eragile batzuekin alderatzeko. Datu horiek eman nahiko nizkizueke, baina oraindik ez daude.

Hala ere, badira argitaratutako zenbait txosten. Orkestrako Lehiakortasun Txostenean ikusten denez, teknologia digitala berritzeari dagokionez, EAE 8. postuan dago. Bestela esanda, Espainiako eta Europako batez bestekoaren gainetik. Eta euskal ETEen %71k du behintzat digitalizazioa, maila desberdinetan.

Zehazki adimen artifizialari erreparatuta, 10 langile baino gehiago dituzten ETE teknologikoen %22k adimen artifiziala erabiltzen du. Europar Batasunarekin alderatuta apur bat beherago izango ginateke. Beraz, esan daiteke hazitegi ona dugula, baina zehazki adimen artifizialari dagokionez bidea dugula egiteko.

"Zertan inbertitu baino, enpresek galdetzen dute zer jakin behar duten, norekin hitz egin dezaketen, zein kolaborazio jar ditzaketen martxan, zein negozio eredu berri irailki dezaketen..."

Mundu mailan enpresen inbertsioa hamahiru aldiz biderkatu da azkeneko hamarkadan. Enpresek galdetzen dute zertan inbertitu daitekeen?


Zertan inbertitu baino, enpresek galdetzen dute zer jakin behar duten, norekin hitz egin dezaketen, zein kolaborazio jar ditzaketen martxan, zein negozio eredu berri irailki dezaketen... Nostki, badago beste behar hori ere eta horri erantzuteko sortzen da BAIC. Azken baten BAIC da eragile bat non ekosistema zentralizatzen den. Ahalbidetzen du zure behar edo arazo bati erantzun nahi badiozu, beste hainbat entitatekin egitea zure zure egoera berdina dutenak edo zu baino aurreratuago direnak eta helduleku izan daitezkeenak.

BAICen estrategia da, beraz, bidegile izatea?

BAICen estrategia da ekosistemari bidea erraztea. Adimen artifiziala egiten hasi duen norbait nora jo jakin dezan. Eta horrekin batera, indar gehiago izan dezagun ekosistema gutxia bateratuta eta Euskadi bezala nazioartean hobeto posizionatzeko aukera izan dezagun. Izan ere, konplexutasun teknologiko handiko unea da, eta norbera bere kabuz joanda ez da ezer lortzen. Aldiz, BAICen—eta ekosisteman—daude zentro teknologiko eta ezagutza eragileak, enpresa traktore handiak, garrantzaila teknologikoa, administrazio publiko... Kolaborazio publiko-privatuaren sustatzen dugu denok sinergia horien sorrera bultzatu dezagun. Bideratzaille bat gara azken baten.

Nolakoa izaten ari da ekosistema elkartzeko prozesua?

urteak inbertuen jarri gerozu martxan bazkidearen bulegoa deritzona. Horren aurretik, BAICen lehenengo lantza entitateari bera sortzeko eta estrategiak finkatzeko erabili zen. Behin bulegoa abiarazita, eragileak ekosistemaren parte aktibora hasi dira sartzen. Horrek ez du esan adimen artifiziala egiten duten eragile gehiago ez daudenik. Baina pixkanaka gerturatu den doaz, norbera bere beharrek eta ezagutza berriekin. Une honetan 35 bazkide ditu, eta 10 kolaboratzaile baino gehiago. Eta egin beharrekoak norberaren abiaduraren arabera artikulatzen ditugu. Hala, azkarrago doazenean gure burua aberastea esparruak topatu ditzakete. Eta motelago doazenean ikasi egin dezakete, eta gomendioak izan.



EAEko adimen artifizialari buruzko datuak ezagutzeko Behatokia jarri nahi du martxan BAICek (Argazkia: Aritz Loidola/Foku)

Lehia eta kolaborazioa. Nola uztartzen dira?

Niri *kopetition* kontzeptua gustatzen zait, geroz eta gehiago erabili beharko duguna. Ezagutzak eta teknologiak hainbesteko garapena darama, non gauzak ezin ditugun bakarrik egin. Lehiatzen dugun bitartean kolaboratzen ikasi behar dugu, baina horrek balio eta aukera gehiago sortuko ditu. Guk ere elkarre bezala hala egiten dugu lan, BAICek ezin dituelako gauzak bakarrik konpondu. Ikuspegi horrekin jaio ginen, elkarian publiko-privatuarena. Nostki, esparru honetara entitateak ez dira etorriko euren azken aurkikuntza partekatzea, baina elkarian daudenak aukera handia dago.

Next Generation funtsak bultzada ematen ari da adimen artifizialari?

Ez dakit zehazki esaten. Baina badakit halako beste zenbait laguntzen kasuetan—azken baten beste entitate batzuen bitartez iristen direnak—emaitzak ematen ari direla. Esaterako, SPRIk pare bat urte daramatza adimen artifizial aplikatuko programarekin. 2021ean 69 enpresek hartu zuten parte, eta iaiz 55ek. Beraz kontsurtzioak sortzen dira eta aurkezten dira. BAICen barruan dugun beste proiektuetako bat da sinergia eta kolaborazio horiek bultzatzea, halako bestelako proiektuak sor daitezen.

"Ezagutzak eta teknologiak hainbesteko garapena darama, non gauzak ezin ditugun bakarrik egin. Lehiatzen dugun bitartean kolaboratzen ikasi behar dugu, baina horrek balio eta aukera sortuko ditu"

Ba al dago punta-puntako sektorerik adimen artifizialari dagokionez EAEn?

Sektore guztiel eragiten die. Beraz ez da sektore bakar baten gauza. Egia da lehen aipatu bezala sektore horiek non digitalizazioan gehien inbertitu den, baita eraldaketan ere, prestakuntza hobeia dutela. Zentzu horretan, fabrikazio-aurreratua da adimen artifizialeko erreferentzia geurean. Era berean, adimen artifizialaren aplikazioak ikusten ari gara sektore energetikoan eta aurrerapenak ikusten ari dira osasungintzan ere. Baina presentzia gehien, esan bezala, fabrikazio aurreratuaren esparruan. Finantzen esparruan, adibidez, BAICetik oraindik ez gaude hain aktibo, baina sekulako potentziala du.

Azken hilabeteetan asko irakurri dugu adimen artifiziala mehatxua dela geure lanentzat. OCDEko datuek diote 10 urte barru inguruan %14 guztia automatizatuta izango direla, eta %32 pertzaiak automatizatuta. Zein puntura arte eraldatu dute eta eraldatuko dituzte geure lanak?

Lanak eraldatzen ditu. Hori errealitatea da, eta harrezkero aldatu den ari da. Batez ere errepikakorragoak direnak, eta automatizatu daitezkeenak litekeena da adimen artifizialak ordezkatzeko. Horrek ez du esan nahi lan eskaintza gutxitu egingo denik. Baina aldatu egingo da. Beste lan eredu batzuk sustatuko ditugu, non sormena eta giza-ekarpena indartzen diren. Parte baten, beraz, gure lana gizatiartu egiten du. Baina eraldaketa hori egin ahal izateko formakuntza behar dugu. Prest izan behar gara, lanean jada hasi, eta airda dugu inor ez dadin atzean geratu.



Dibulgazioa egiteko asmoz, Enpresek bultzatzeko datu-gurea jardunaldia antolatu dute Bilbon (Argazkia: Aritz Loidola/Foku)

Etika al da adimen artifizialaren erroka nagusienetakoa bat?

Eronka gakoa da, ari gehiago Europa, non pribatutasun eta errespetu irizpideak lehentasun mailen goiko partean ezartzen ari diren. Garrantzitsua da azpimarratzea araudiaren eta etikaren alderdi horiek diseinuaren unean bertan txertatu behar direla. Alegia, ez da prestatu, eta ondoren planteatu. Algoritmo eta aplikazioen diseinutik bertatik izan beharko litzateke kontuan.

Eta hala egiten ari dira?

Europa mailan, adimen artifizialari loturiko araudia onarpen prozesuan dago. Derrigorrez bete beharko da. Eta BAICetik lantzen ari garen beste alderdi bat da ekosistema guztiak horren ezaugarria izan dezan, alegia, zein betebeharrak dituen, diseinuan ere kontuan hartzea, eta abar. Horrek harremana du lehen esandakoarekin. Adimen artifiziala ez da soilik teknologikoa. Oso giza-irteera ere bada.

"BAICetik pentsatzen dugu ezin daitekeela eten mundu mailako garapen teknologiko bat. Halako adostasun batera iristea oso zaila da. Gainera, horrek gardentasun falta batzuetako luke. Hain zuzen, getiditen baduzu, ezingo duzu ikusi edo kontrolatu gertatzen ari dena. Horrek arriskuak ahalbidetzen du. Gure ikuspegitik, egin beharreko bidea da Europar martxan jarritako (A) Actena. Horrek ahalbidetuko du kide diren estatu guztiak modu nahiko arazoizkoan bete ditzaten zenbait neurri."

Araudia beti doa teknologiararen atzetik?

Araudia ez da atzean geratzen. Existitzen den zerbitu erregulatua behar du. Beraz, lehenik behar bat sortzen da, eta ondoren hori heltzen du. Egia da adimen artifiziala oso garapen azkarra izaten ari dela, baina alderdi asko kontuan izan behar dituzenez, konplexutasun maila handia eskatzen du.

Europa zorrotzagoa da araudiarekin AEBak baino?

Erregulazio kontuei heltzen diogunean, hainbat aukera daude. Marko bat non konfiantza maila sortzen duzun, bermeakoa eta lasaitasun maila batekin, enpresek jarraitu nahiko dutena. Hori jarraitzen ari da Europa. Eta besteak AEBen jarraitzen ari dena, industria mailan pausokan eman, gauzak erraztu eta bultzatu. Ikuspegi desberdinak dira. Ni herriar gisa eroazego sentitzen naiz lehenengo ikuspegiarekin. Abiadura asko izan daitezke, baina zaintza hori niretzat lasaigarria da.

"Araudia ez da atzean geratzen. Existitzen den zerbitu erregulatua behar du. Beraz, lehenik behar bat sortzen da, eta ondoren hori heltzen du"

Datorren asteartean, maiatzaren 2an, Enpresek bultzatzeko datu-gurea jardunaldia antolatu duzue Bilbon Inolabeekin batera. Zein da helburua?


Dibulgazioa egitea, eta zein aukera dauden erakustea. Izan ere, hori da BAICen azkeneko ardatza: datuaren estrategia. Hain zuzen, datuaren kaltetara garrantzia zer gertatzen den jorratzea ezinbestekoa da—zaindua, balioa erantista, eta joera gabekoa zein garantzitua den—. Eta aldi berean, partekatze espazio bat ere bada, datuaren ekonomiarekin sortzen ari diren negozio ereduak buruzkoa.

Gainera, Gaia-Xek Tecnaliaren bitartez antolatutako Hackatonaren aurretik izango da. Foro hori teknikoagoa da, harrezkero gaiaz zerbitu datukituen. Honek beste ikuspegi bat du: helburua da konfiantza-esparru bat sortu datuaren estrategia zer den ezagutzen ez duen norbait, edo datuen espazio partekatu bat zer den ez dakien norbaitetaz ulertzeko aukera izan dezan, esperientzia errealek ezagutuz.

Oraindik ibilbide luzea da erabiltzeko, definitzeko, erabiltzeko. Paradigma berri bat du ardatz, non espazioak izan ditzagun datuei balioa emateko, ez oparitzeko.

Hitz bitan

GAURKO NABARMENDUAK



Nor gara
Lege informazioa
Pribatutasun politika
Euskerdi, auzolana
EUSKAL ENPRESEN ERKATEKOA

Jarrai gaitzazu

IZENA EMAN

LINKEDIN

TWITTER

FACEBOOK

TELEGRAM

RSS